

**KONTSUMOBIDE**

**MEMORIA**

**2012**

## AURKIBIDEA

<b>1. <a href="#">SARRERA</a></b>	<b>3</b>
<b>2. <a href="#">GATAZKEN KONPONBIDEA</a></b>	<b>4</b>
2.1. Kontsumoko <a href="#">kontsultak</a>	4
2.2. Kontsumoko <a href="#">erreklamazioak</a>	6
2.2.1. <a href="#">Kontsumobide</a>	9
2.3. Kontsumoko <a href="#">arbitrajea</a>	19
2.4. Hitzezko <a href="#">epaiketa</a>	27
<b>3. <a href="#">MERKATUAREN KONTROLA</a></b>	<b>28</b>
3.1. Ikuskatze- eta kontrol- <a href="#">kanpainak</a>	28
3.2. <a href="#">SOIVRE</a> rekin koordinatutako ikuskapen kanpainak	29
3.3. <a href="#">Elikadurakoez bestekoen produktuen</a> kontrola	30
3.4. <a href="#">Ikuskatze-lanak</a>	31
3.5. <a href="#">Jakinarazpenak</a>	33
<b>4. <a href="#">PRESTAKUNTZA ETA HEZKUNTZA</a></b>	<b>34</b>
4.1. Kontsumobideko prestakuntza <a href="#">zentroak</a>	34
4.2. Kontsumoko prestakuntza <a href="#">ikastetxeetan</a> programa	37
4.3. <a href="#">Adineko</a> pertsonak eta Kontsumoa	39
4.4. <a href="#">Beste batzuk</a>	41
4.5. <a href="#">Ikastaro eta jardunaldiak</a>	42
4.6. Prestakuntza iraunkorra <a href="#">profesionalentzat</a>	43
<b>5. <a href="#">INFORMAZIOA</a></b>	<b>45</b>
5.1. <a href="#">Argitalpen-programa</a>	45
5.2. <a href="#">Sentsibilizazio-programa</a>	50
5.3. <a href="#">Dokumentazio-programa</a>	52
<b>6. <a href="#">ERAGILEEN ARTEKO LANKIDETZA</a></b>	<b>54</b>
6.1. <a href="#">Babes ekonomikoa</a> emateko programa	54
6.2. Kontsumoko Aholku <a href="#">Batzordea</a>	59
<b>7. <a href="#">BESTE ERAKUNDE BATZUEKIN HARREMANAK</a></b>	<b>60</b>
7.1. <a href="#">INC</a> eta gainerako autonomia-erkidegoak	60
7.2. <a href="#">CONSUMERS</a> Internacional	60
<b><a href="#">ERANSKINA</a>: KIAZ SAREKO ZENTROEN ZERRENDA</b>	<b>61</b>

## 1. SARRRERA

Kontsumobide – Kontsumoko Euskal Institutua 2011ko irailaren 1ean abiarazi zen, haren egitura eta antolaketa arautzen dituen [uztailaren 12ko 159/2011 Dekretua](#) onartu ondoren. Data horretatik aurrera, Kontsumobidek Eusko Jaurlaritzaren lehengo Kontsumo Zuzendaritza ordezkatu zuen. 2011ko Memorian Kontsumo Zuzendaritzak (2011ko urtarrilaren 1etik abuztuaren 31ra arte) eta Kontsumobidek (2011ko irailaren 1etik abenduaren 31ra arte) garatutako jarduera islatu zen. 2012ko memoria honetan, Institutuak bere lehen urtean Eusko Jaurlaritzako Erakunde Autonomo gisa egin duen jarduna jasotzen da.

Kontsumobidek kontsumoaren alorrean lan egiten duten pertsoneri nahiz herritar guztiei aldi horretan zehar egindako lanaren berri emateko argitaratu du 2012ko Kontsumo Memoria.

Memoria Kontsumobideren funtsezko ardatzekin bat datozen lau zatitan banatua dago: gatazken konponbidea, merkatuaren kontrola, prestakuntza eta informazioa, eta beste erakunde batzuekin lankidetzak.

Gatazken Konponbideari dagokion kapituluak, kontsumitzaileek kontsumoarekin erlazionatuta dituzten arazoak konpontzeko erabilitako bide guztiak biltzen ditu: kotsultak, erreklamazioak, arbitraje-eskaerak eta hitzezko epaiketak.

Merkatuaren kontrolari dagokionez, kontsumitzaileen eskura dauden produktuek eta zerbitzuek indarreko legerian eskatutako baldintza guztiak (etiketei, informazioari eta segurtasunari dagokienez) betetzen dituztela egiaztatzeko ikuskatze-jardueren sorta da. Era berean, osasunarentzat edo segurtasunarentzat arriskutsuak izan daitezkeen produktuak topatzeaz, ibilgetzeaz, eta beharrezkoa den kasuetan, merkatutik kentzeaz arduratzen da Kontsumobide.

Prestakuntzari eta informazioari dagokienez, herritarrak beren eskubide eta betebeharrak buruz kontzientziatu eta hezteko ezinbesteko zereginak dira, modu kritiko, kontziente eta arduratsuan jardun dezaten produktu eta zerbitzuak kontsumitzeko garaian. 2012an herritarrak hezteko eta informatzeko egindako jarduera nagusiak honako hauek izan dira: ikastaroak, hitzaldiak, hezkuntza-zerbitzuak, kaleko jarduerak, komunikabideetako agerraldiak eta argitalpenak.

Azkenik, beste agente batzuekiko harremanari eta lankidetzari buruzko epigrafeak, beste erakunde batzuei (adibidez Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoak - KIUB, kontsumo-elkarteak edo toki-erakundeak) emandako laguntza ekonomiko, juridiko eta informatzaileko programen balantzea egiten du.

Era berean, barneko eranskinean Euskal Autonomia Erkidegoan KIAZ Sarea osatzen duten, hau da, kontsumitzaileei informazioa eta arreta eskaintzen dieten zentro guztien zerrenda agertzen da.

[Aurkibidera joan](#)

## **2. GATAZKEN KONPONKETA**

Herritarrei zerbitzu eraginkor bat eskaintzea da Kontsumobide – Kontsumoko Euskal Institutuaren lehentasuna, baita horiei beharrezko baliabide guztiak eskaintzea ere, herritarrek kontsumoaren alorrean dituzten eskubideak eta hartu behar dituzten arreta-neurriak zein diren jakin dezaten.

### **2.1. KONTSUMOKO KONTSULTAK**

Kontsumobidek informazio- eta aholkularitza-eginkizun garrantzitsua betetzen du, kontsumitzaileei arreta eskainiz. 2012an zehar kontsumoari buruzko 14.587 kontsulta erantzun ditu guztira. Kontsultak jasotzeko ondorengo bideak erabili ditu: aurrez aurre, telefonoz (bai jendearen arretarako lurralde zerbitzuetako telefonoen bidez, bai kontsumitzaileentzako doaneko telefonoaren bidez) eta on-line.

Era berean, beste hainbat erakundek, KIUBek edo kontsumitzaileen elkarteek, adibidez, kontsumitzaileen kontsultak jaso dituzte: 2012 urtean, 24.112 eta 3.985, hurrenez hurren.

Ondorengo taulan erakundeek jasotako kontsulten datuak ikus daitezke:


<b>JASOTAKO KONTSULTAK ERAKUNDEKA</b>						
<b>PRODUKTUAK/ZERBITZUAK</b>	<b>KONTSUMOBIDE</b>		<b>KIUB</b>	<b>KE</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>%</b>
	<b>LURRALDE Z.</b>	<b>DOAKO TELEFONOA</b>				
Elikadura	35	395	50	14	494	1,16
Etxetresna elekt., informat., ikus-entzunezk.	801	280	556	95	1732	4,06
Jostailuak	19	12	19	0	50	0,12
Material elektrikoa	24	1	19	3	47	0,11
Altzariak	174	159	180	50	563	1,32
Prod. Kimik. (kosmetik., drog. eta lurringaiak)	123	64	713	34	934	2,19
Ehunak, oinetakoa keta osagarriak	363	205	262	42	872	2,04
Telefonia eta komunikazioa	21		14	0	35	0,08
Ibilgailuak	290	131	487	88	996	2,33
Askotariko produktuak	226	71	408	44	749	1,75
Etxetresna elektrikoen konponketa	160	129	231	44	564	1,32
Energia zerbitzuak	974	531	2650	401	4556	10,67
Etxebizitza, higiezinaren sustapena	284	85	1030	503	1902	4,46
Etxebizitzen konponketa, gremioak	234	102	190	37	563	1,32
Ibilgailuen konponketa	222	123	354	65	764	1,79
Bidaiak	235	79	343	75	732	1,71
Garraioak	330	196	677	223	1426	3,34
Telekomunikazioak – Telefonia zerbitzuak	2150	1210	2513	612	6485	15,19
Banku-zerbitzuak	423	270	1195	240	2128	4,99
Osasun- eta laguntza-zerbitzuak	74	34	127	36	271	0,63
Tindategiak, garbitegiak	46	23	48	9	126	0,30
Aseguruak	326	307	1186	259	2078	4,87
Gasolina zerbitzuguneak	16	3	24	4	47	0,11
Askotariko zerbitzuak	2048	579	10836	1107	14570	34,13
<b>GUZTIRA</b>	<b>9.598</b>	<b>4.989</b>	<b>24.112</b>	<b>3.985</b>	<b>42.684</b>	<b>100,00</b>

[Aurkibidera joan](#)

## 2.2. KONTSUMOKO ERREKLAMAZIOAK

2012an, EAEn, 21.535 erreklamazio tramitatu ziren kontsumo-bulegoen bidez: 8.488 Kontsumobideren bitartez, 12.762 Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoen (KIUB) bitartez eta 285 kontsumitzaile-elkarteen bidez.

Kontsumo-erakundeek izapidetutako erreklamazioak aztertuz, sektore erreklamatuenetan jarraitutasun bat dagoela ikus daiteke, eta horietan guztietan telekomunikazioen sektorea da erreklamazio gehien jaso dituen, erreklamazioen % 40,14, hain zuzen ere. Energia-zerbitzuak bigarren tokian ageri dira (% 10,51), eta jarraian, garraioak (% 5,77) eta etxetresna elektrikoak eta informatikako edo ikus-entzunezko produktuekin zerikusia dutenak (% 3,78). Lau sektore horiek erreklamazio guztien erdiak baino gehiago biltzen dituzte (% 60,20).



<b>ERREKLAMAZIOAK EUSKADIN SEKTOREKA ETA ERAKUNDEKA</b>						
<b>PRODUKTUAK/ZERBITZUAK</b>	<b>KONTSUMOBIDE</b>		<b>KE</b>		<b>KIUB</b>	
	<b>GUZTIR.</b>	<b>%</b>	<b>GUZTIR.</b>	<b>%</b>	<b>GUZTIR.</b>	<b>%</b>
Elikadura	238	2,80	3	1,05	529	4,15
Etxetresna elekt., informat., ikus-entzunezk.	411	4,84	8	2,81	394	3,09
Jostailuak	46	0,54	0	0,00	9	0,07
Material elektrikoa	35	0,41	0	0,00	6	0,05
Altzariak	220	2,59	5	1,75	122	0,96
Prod. Kimik. (kosmetik., drog. eta lurringaiak)	22	0,26	0	0,00	8	0,06
Ehunak, oinetakoa keta osagarriak	421	4,96	0	0,00	123	0,96
Telefonia eta komunikazioa	328	3,86	1	0,35	83	0,65
Ibilgailuak	175	2,06	3	1,05	160	1,25
Askotariko produktuak	258	3,04	5	1,75	310	2,43
Etxetresna elektrikoen konponketa	173	2,04	3	1,05	90	0,71
Energia zerbitzuak	757	8,92	26	9,12	1482	11,61
Etxebizitza, higiezinaren sustapena	50	0,59	15	5,26	134	1,05
Etxebizitzen konponketa, gremioak	38	0,45	1	0,35	46	0,36
Ibilgailuen konponketa	237	2,79	6	2,11	183	1,43
Bidaiak	171	2,01	8	2,81	255	2,00
Garraioak	582	6,86	27	9,47	635	4,98
Telekomunikazioak – Telefonia zerbitzuak	2675	31,52	120	42,11	5821	45,61
Banku-zerbitzuak	241	2,84	9	3,16	429	3,36
Osasun- eta laguntza-zerbitzuak	109	1,28	2	0,70	30	0,24
Tindategiak, garbitegiak	108	1,27	0	0,00	37	0,29
Aseguruak	59	0,70	18	6,32	385	3,02
Gasolina zerbitzuguneak	59	0,70	0	0,00	7	0,05
Askotariko zerbitzuak	1063	12,52	25	8,77	1484	11,63
Kodetu gabeak	12	0,14	0	0,00	0	0,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>8.488</b>	<b>100,00</b>	<b>285</b>	<b>100,00</b>	<b>12.762</b>	<b>100,00</b>

<b>ERREKLAMAZIOAK EUSKADIN SEKTOREKA ETA LURRALDE HISTORIKOKA</b>								
	<b>ARABA</b>		<b>GIPUZKOA</b>		<b>BIZKAIA</b>		<b>GUZTIRA</b>	
	<b>GUZTIR.</b>	<b>%</b>	<b>GUZTIR.</b>	<b>%</b>	<b>GUZTIR.</b>	<b>%</b>		<b>%</b>
Elikadura	133	3,34	50	0,99	586	4,71	769	3,58
Etxetresna elekt., informat., ikus-entzunezk.	136	3,41	196	3,86	480	3,86	812	3,78
Jostailuak	13	0,33	7	0,14	35	0,28	55	0,26
Material elektrikoa	4	0,10	8	0,16	29	0,23	41	0,19
Altzariak	89	2,23	61	1,20	195	1,57	345	1,60
Prod. Kimik. (kosmetik., drog. eta lurringaiak)	12	0,30	10	0,20	8	0,06	30	0,14
Ehunak, oinetakoa keta osagarriak	82	2,06	102	2,01	360	2,89	544	2,53
Telefonia eta komunikazioa	79	1,98	67	1,32	264	2,12	410	1,91
Ibilgailuak	91	2,28	74	1,46	173	1,39	338	1,57
Askotariko produktuak	146	3,66	143	2,82	283	2,27	572	2,66
Etxetresna elektrikoen konponketa	43	1,08	35	0,69	188	1,51	266	1,24
Energia zerbitzuak	360	9,03	618	12,18	1283	10,31	2261	10,51
Etxebizitza, higiezinaren sustapena	84	2,11	48	0,95	66	0,53	198	0,92
Etxebizitzaren konponketa, gremioak	10	0,25	15	0,30	60	0,48	85	0,40
Ibilgailuen konponketa	81	2,03	96	1,89	248	1,99	425	1,98
Bidaiak	68	1,71	71	1,40	295	2,37	434	2,02
Garraioak	156	3,91	202	3,98	884	7,10	1242	5,77
Telekomunikazioak – Telefonia zerbitzuak	1540	38,64	2405	47,42	4688	37,65	8633	40,14
Banku-zerbitzuak	149	3,74	192	3,79	325	2,61	666	3,10
Osasun- eta laguntza-zerbitzuak	24	0,60	36	0,71	87	0,70	147	0,68
Tindategiak, garbitegiak	8	0,20	37	0,73	86	0,69	131	0,61
Aseguruak	155	3,89	98	1,93	214	1,72	467	2,17
Gasolina zerbitzuguneak	147	3,69	17	0,34	39	0,31	203	0,94
Askotariko zerbitzuak	375	9,41	475	9,37	1573	12,63	2423	11,27
Kodetu gabeak	0	0,00	9	0,18	1	0,01	10	0,05
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.985</b>	<b>100,00</b>	<b>5.072</b>	<b>100,00</b>	<b>12.450</b>	<b>100,00</b>	<b>21.507</b>	<b>100,00</b>

Gainera, Kontsumobidek kontsumitzaile eta erabiltzaileek erreklamazioak telematikoki aurkezteko aukera abiarazi zuen 2012. urteko azken lauhilekoan; gainera, horiek bulegoan bertan egiten diren erreklamazioen balio bera dute. Erreklamazioa telematikoki aurkeztu ahal izateko, segurtasun-arrazoiak direla eta, erreklamazio-egileak formalki identifikatu beharko du bere burua, onartuta dagoen sinadura elektronikorako ziurtagiriren bat erabiliz (NAN elektronikoa, Izenpe txartela, etab.).



2012. urteko irailetik, 28 erreklamazio jaso dira telematikoki, eta honako hauek izan dira, berriz ere, erreklamazio gehien jaso dituzten bi sektoreak: lehenik eta behin, telekomunikazioen sektorea (% 25), eta gero, energia-zerbitzua (% 14,29).

### 2.2.1. Kontsumobide

2012an, Kontsumobidek 8.488 erreklamazio-orri jaso zituen Bilboko, Donostiako eta Gasteizko bulegoetan, nahiz telematikoki. Honako hau da bulegoetan egindako erreklamazioen lurraldekako banaketa: 1.705 Arabako Kontsumobideko bulegoan izapidetu ziren, 4.882 Bizkaian, 1.873 Gipuzkoan eta 28 on line.

2012ko ekitaldia amaitu aurretik Kontsumobideko hiru bulegoetara iritsi ziren erreklamazio guztietatik, 546 ez ziren izapidetzeko onartu hainbat arrazoi direla-eta, eta 1.008 beste erakunde batzuetara —kontsumokoak nahiz beste batzuk— bideratu ziren, horiek ebatzi ahal izateko. Era berean, 239 erreklamazio Arbitraje Batzordera aldatu ziren.

Gainera, 61 erreklamazio-egilek beren eskaera baliogabetu zuten.

Institutuak 2012an egin duen bitarteko-lanaren bultzada garrantzitsua azpimarratu behar da, Kontsumobidek 5.125 kasutan (% 68,53) gauzatu baitu bitartekotza-lan hori. 2.339 kasutan (% 45,64) alderdien arteko adostasuna lortu da, ez ordea beste 1.629 kasutan (% 31,79).

Kontsumobidek zehapen-espeditatea proposatzen zuten 253 espediente (% 4,94) itxi zituen, salatutako enpresentzat. Bestalde, 630 kasutan (% 12,29) espedientea artxibatu egin zen arau-hausterik gertatu ez zela egiaztatu ondoren.

2012an jasotako 981 erreklamazio (% 11,6) bideratzen ari ziren 2012ko abenduaren 31ra.

			ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		EUSKADI	
			Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
<b>BERTARATZE ERREKLAM.</b>	<b>Ebatzitakoak</b>	Bitartekaritz.	1.272	79.3	2.629	61.05	1.224	78.01	5.125	<b>68.53</b>
		Bizartekaritz. Ez	332	20.7	1.677	38.95	345	21.99	2354	31.47
		<b>Guztira</b>	<b>1.604</b>	<b>94.08</b>	<b>4.306</b>	<b>88.2</b>	<b>1.569</b>	<b>83.77</b>	<b>7.479</b>	<b>88.4</b>
	<b>Izapidetzen</b>		<b>101</b>	<b>5.92</b>	<b>576</b>	<b>11.8</b>	<b>34</b>	<b>16.23</b>	<b>981</b>	<b>11.6</b>
			<b>1.705</b>		<b>4.882</b>		<b>1.873</b>		<b>8.460</b>	

EBATZITAKO ERREKLAMAZIOAK: HARTUTAKO ERABAKIEN AZTERKETA								
	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		EUSKADI	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
ARTXIBATU ADOSTASUNAGATIK	685	53,85	1022	38,87	475	38,81	2.182	42,58
ARTXIBATU ADOSTASUN PARTZIALAGATIK	62	4,87	40	1,52	55	4,49	157	3,06
ARTXIBATU OHARTARAZPENAREKIN	8	0,63	20	0,76	7	0,57	35	0,68
ARTXIB. ARBITRAJE PROPOSAMENAREKIN	24	1,89	160	6,09	55	4,49	239	4,66
ARTXIB. ZEHAPEN-ESPED. PROPOSAMENAREKIN	61	4,80	82	3,12	110	8,99	253	4,94
ARTXIB. ADOSTASUNIK GABEKO BITARTEKOTZA	410	32,23	820	31,19	399	32,60	1.629	31,79
ARTXIBATU ARAU-HAUSERIK GABE	22	1,73	485	18,45	123	10,05	630	12,29
	<b>1.272</b>		<b>2.629</b>		<b>1.224</b>		<b>5.125</b>	
	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		EUSKADI	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
ARTXIBATU. SALAKETA	66	19,88	341	20,33	139	40,29	546	23,19
ARTXIBATU. EZ DA IZAPETZEA ONARTU	8	2,41	70	4,17	23	6,67	101	4,29
ARTXIBATU. EZ DA AURKITU	15	4,52	31	1,85	15	4,35	61	2,59
ARTXIBATU UKO EGITEAGATIK	15	4,52	166	9,90	8	2,32	189	0
ARTIB. DOKUMENTAZIOA EZ AURKEZTEAGATIK	122	36,75	268	15,98	46	13,33	436	18,52
ARTXIBATU. KEXA	1	0,30	12	0,72	0	0	13	0,55
ALERTA-SAREAN SARTZEA	80	24,10	721	42,99	99	28,70	900	38,23
KONTSUM. EZ DEN ERAKUND. BAT. ESKUM. UTZI	25	7,53	68	4,05	15	4,35	108	4,59
KONTSUM. BESTE ERAKUND. BATER. BIDALTZEA	<b>332</b>		<b>1.677</b>		<b>345</b>		<b>2.354</b>	

Sektoreei dagokienez, azken urteetako sektore berdinak izan dira, oraingoan ere, erreklamazio gehien izan dituztenak. Lehen hiru posizioetan telefonia, energia-zerbitzuak eta garraia daude.

### Erreklamazioen zergatiak

Jarraian, erreklamazio gehien izan dituzten hiru sektoreetan kontsumitzaileek eman dituzten arrazoiak xehatzen dira:

TELEKOMUNIKAZIOAK					
Telefonia finkoa		Telefonia mugikorra		Interneten sartzea	
Arrazoiak	%	Arrazoiak	%	Arrazoiak	%
Altak	3,42	Altak	0,47	Altak	3,64
Bajak	16,15	Bajak	10,25	Bajak	20,17
Fakturazioa	33,85	Estaldura	0,68	Fakturazioa	26,61
Kontrat./Eskaintz. ez betetzea	25,16	Fakturazioa	35,02	Kontrat./Eskaintz. ez betetzea	26,89
Informazio eskasa	2,48	Kontrat./Eskaintz. ez betetzea	17,12	Informazio eskasa	4,20
Etenaldiak	4,04	Informazio eskasa	2,76	Etenaldiak	2,24
Eramangarritasuna	7,14	Etenaldiak	1,04	Linea libre utzi	0,56
Kontrat. ez zerbitz. kobratu	0,31	Linea libre utzi	2,97	Publizitate iruzurtia	1,40
Beste batzuk	7,45	Eramangarritasuna	8,17	Kontrat. ez zerbitz. kobratu	1,12
		Publizitate iruzurtia	0,26	Beste batzuk	13,17
		SMS	2,13		
		Kontrat. ez zerbitz. kobratu	1,56		
		Beste batzuk	17,59		


ENERGIA-HORNIDURAK	
Arrazoiak	%
Hornidura etenaldiak	8,99
Gabeziak zerbitzuan	15,84
Irakurketekin desadostasunak	7,65
Fakturazioa	42,28
Erreklam. orriak: ez daukate edo ezezkoa	0,13
Kontrat./Eskaintz. ez betetzea	6,44
Informazio eskasa	3,09
Enpresari erreklamazioak ebatzi gabe	4,56
Beste batzuk	11,01

GARRAIOAK	
Arrazoiak	%
Txartelak	5,70%
Zerbitzuaren kalitate eskasa	28,31%
Fakturazioa	6,37%
Erreklam. orriak: ez daukate edo ezezkoa	0,84%
Informazio eskasa	4,36%
Mezularitza – paketeria zerbitzua	0,34%
Overbooking	1,01%
Ekipaje galerak - kalteak	6,70%
Atzerapenak	24,96%
Beste batzuk	21,44%

### **Zehapen- espedienteak**

2012an, 180 zehapen-espeditente ireki ziren, Kontsumobidek programatutako ikuskapen-kanpainen bitartez edo jasotako erreklamazioen ondorioz.

Lurraldeka, Araban 54 zehapen-espeditente ireki ziren, Bizkaian 67 eta Gipuzkoan 59.



Sektoreka irekitako zehapen-espedienteei dagokienez, telefonia-enpresek jaso dituzte zehapen gehien, kopuru osoaren % 18 baino gehiago, hain zuzen.

		ABIAN JARRITAKO ESPEDIENTEAK				
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA	%
PRODUKTUAK	Elikadura	1	0	0	1	0,56
	Etxetresna elekt., informat., ikus-entzunezk.	7	8	6	21	11,67
	Jostailuak	0	3	2	5	2,78
	Material elektrikoa	1	3	1	5	2,78
	Altzariak	1	0	2	3	1,67
	Prod. Kimik. (kosmetik., drog. eta lurringaiak)	0	4	3	7	3,89
	Ehunak, oinetakoa keta osagarriak	1	3	3	7	3,89
	Telefonia eta komunikazioa	0	0	0	0	0,00
	Ibilgailuak	2	3	0	5	2,78
	Askotariko produktuak	1	3	2	6	3,33
ZERBITZUAK	Etxetresna elektrikoen konponketa	0	5	2	7	3,89
	Energia zerbitzuak	10	6	4	20	11,11
	Etxebizitza, higiezinaren sustapena	1	1	1	3	1,67
	Etxebizitzen konponketa, gremioak	2	0	0	2	1,11
	Ibilgailuen konponketa	2	0	3	5	2,78
	Bidaiak	0	2	1	3	1,67
	Garraioak	1	1	1	3	1,67
	<i>TELEKOMUNIKAZIOAK</i>					
	OROKORRA	0	0	0	0	0,00
	TELEFONÍA FINKOA	1	0	2	3	1,67
	TELEFONÍA MUGIKORRA	16	6	11	33	18,33
	INTERNETEN SARTZEA	4	1	3	8	4,44
	Banku-zerbitzuak	0	0	0	0	0,00
	Osasun- eta laguntza-zerbitzuak	0	0	1	1	0,56
	Tindategiak, garbitegiak	1	0	0	1	0,56
	Aseguruak	0	0	0	0	0,00
	Gasolina zerbitzuguneak	0	0	0	0	0,00
	Askotariko zerbitzuak	2	18	10	30	16,67
Kodetu gabeak	0	0	1	1	0,56	
<b>GUZTIRA</b>	<b>54</b>	<b>67</b>	<b>59</b>	<b>180</b>	<b>100,00</b>	

Irekitako espediente guztien artean, Kontsumobidek 112 (% 62,22) ebatzi ditu 2012an. Horietatik 101 zigortu dira. Lurralde historikoen sailkapena eta egindako arau-hausteen maiztasuna behar bezala ikus daiteke jarraian agertzen den taulan:

<b>ARAU-HAUSTE MOTAK:</b>	<b>ARABA</b>	<b>GIPUZK.</b>	<b>BIZKAIA</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>%</b>
Osasuna eta segurtasuna babesteko arloa	0	1	0	1	0,99
Baldintzak, betebeharrak eta debekuak ez betetzea	0	5	0	5	4,95
Zerbitzuak akatsekin edo gaizki egitea	0	0	1	1	0,99
Mota guztietako zerbitzuak ez betetzea	4	7	3	14	13,86
Indarreko araudia edo eskainitako baldintzak ez betetzea	5	11	13	29	28,71
Laguntza tekniko nahikorik ez izatea edo ordezeko piezarik ez edukitzea	0	1	0	1	0,99
Normalizazio teknikoaren arloan eta merkataritza eta zerbitzugintza arloan	0	1	0	0	0,00
Bidegabeko baldintza, gainordain edo kobratzeak	0	6	0	6	5,94
Berre-argiririk ez ematea	0	1	0	1	0,99
Eskubideak mugatu edo urratzen dituzten klausulak sartzea	3	6	0	9	8,91
Fakturarik ez ematea	0	1	0	0	0,00
Erreklamazio-orriak ez edukitzea edo ez ematea	4	1	5	10	9,90
Ikuskatze-lanei aurka edo uko egitea, edo oztopoak ipintzea	7	8	12	27	26,73
Baldintza, eginbehar edo debekuak ez betetzea	10	5	2	17	16,83
<b>EXPEDIENTEAK GUZTIRA</b>	<b>28</b>	<b>39</b>	<b>34</b>	<b>100</b>	<b>100</b>


[Aurkibidera joan](#)

### 2.2.2. Kontsumoko udal-bulegoak

Kontsumoko udal-bulegoek (KIUB) guztira 12.762 erreklamazio jaso zituzten; 2.235 Arabako Lurralde Historikoan izapidetu ziren, 7.503 Bizkaian eta 3.024 en Gipuzkoan.

		KIUBak				
		ALAVA	GIPUZKOA	BIZKAIA	GUZT.	%
PRODUKTUAK	Elikadura	105	28	396	529	4,15
	Etxetresna elekt., informat., ikus-entzunezk.	67	78	249	394	3,09
	Jostailuak	1	1	7	9	0,07
	Material elektrikoak	2	1	3	6	0,05
	Altzariak	22	21	79	122	0,96
	Prod. Kimik. (kosmetik., drog. eta lurringaiak)	5	1	2	8	0,06
	Ehunak, oinetakoa keta osagarriak	12	20	91	123	0,96
	Telefonia eta komunikazioa	18	16	49	83	0,65
	Ibilgailuak	54	24	82	160	1,25
	Askotariko produktuak	98	57	155	310	2,43
ZERBITZUAK	Etxetresna elektrikoaren konponketa	6	21	63	90	0,71
	Energia zerbitzuak	181	425	876	1482	11,61
	Etxebizitza, higiezinaren sustapena	66	25	43	134	1,05
	Etxebizitzaren konponketa, gremioak	3	13	30	46	0,36
	Ibilgailuen konponketa	41	40	102	183	1,43
	Bidaiak	49	60	146	255	2,00
	Garraioak	101	118	416	635	4,98
	TELEKOMUNIKAZIOAK					
	OROKORRA	564	894	2213	3671	28,77
	TELEFONÍA FINKOA	44	130	262	436	3,42
	TELEFONÍA MUGIKORRA	108	497	831	1436	11,25
	INTERNETEN SARTZEA	30	72	176	278	2,18
	Banku-zerbitzuak	136	128	165	429	3,36
	Osasun- eta laguntza-zerbitzuak	5	10	15	30	0,24
	Tindategiak, garbitegiak	3	6	28	37	0,29
	Aseguruak	143	68	174	385	3,02
	Gasolina zerbitzuguneak	0	3	4	7	0,05
	Askotariko zerbitzuak	371	267	846	1484	11,63
	Kodetu gabeak	0	0	0	0	0,00
	<b>GUZTIRA</b>	<b>2.235</b>	<b>3.024</b>	<b>7.503</b>	<b>12.762</b>	<b>100,00</b>

Ondorengo grafikoan ikus daiteke KIUBetan jasotako erreklamazioen banaketa Lurralde Historikoka:



[Aurkibidera joan](#)




### 2.2.3. Kontsumitzaileen elkarteak

Kontsumitzaileen elkarteek honako zeregin hauek betetzen dituzte: informazioa eman, bitartekotza eskaini elkarteetako bazkide diren pertsonen formulatutako erreklamazioen bitartez, eta aholkularitza eta defentsa juridikoa. 2012an, elkarteek 285 erreklamazio izapidetu zituzten; 45 Araban, 175 Gipuzkoan eta 65 Bizkaian.

		KEak				
		ARABA	GIPUZK.	BIZKAIA	GUZT.	%
PRODUKTUAK	Elikadura	2	0	1	3	1,05
	Etxetresna elekt., informat., ikus-entzunezk.	3	2	3	8	2,81
	Jostailuak		0	0	0	0,00
	Material elektrikoa		0	0	0	0,00
	Altzariak	1	4	0	5	1,75
	Prod. Kimik. (kosmetik., drog. eta lurringaiak)		0	0	0	0,00
	Ehunak, oinetakoa keta osagarriak		0	0	0	0,00
	Telefonia eta komunikazioa	1	0	0	1	0,35
	Ibilgailuak		1	2	3	1,05
	Askotariko produktuak		5	0	5	1,75
ZERBITZUAK	Etxetresna elektrikoen konponketa	1	2	0	3	1,05
	Energia zerbitzuak	8	12	6	26	9,12
	Etxebizitza, higiezinaren sustapena	5	9	1	15	5,26
	Etxebizitzen konponketa, gremioak		1	0	1	0,35
	Ibilgailuen konponketa		5	1	6	2,11
	Bidaiak	2	0	6	8	2,81
	Garraioak	2	9	16	27	9,47
	TELEKOMUNIKAZIOAK					0,00
	OROKORRA		9	4	13	4,56
	TELEFONIA FINKOA	1	11	2	14	4,91
	TELEFONIA MUGIKORRA	10	53	14	77	27,02
	INTERNETEN SARTZEA	5	11	0	16	5,61
	Banku-zerbitzuak		8	1	9	3,16
	Osasun- eta laguntza-zerbitzuak		1	1	2	0,70
	Tindategiak, garbitegiak		0	0	0	0,00
	Aseguruak	2	14	2	18	6,32
	Gasolina zerbitzuguneak		0	0	0	0,00
	Askotariko zerbitzuak	2	18	5	25	8,77
Kodetu gabeak		0	0	0	0,00	
<b>GUZTIRA</b>	<b>45</b>	<b>175</b>	<b>65</b>	<b>285</b>	<b>100,00</b>	

Kontsumitzaileen elkarteetan jasotako erreklamazioak honela banatu ziren lurralde historiko bakoitzeko:



[Aurkibidera joan](#)

## 2.3. KONTSUMOKO ARBITRAJEA

Kontsumoko Arbitraje Sistema, kontsumo-harremanetan sor daitezkeen desadostasunak konpontzeko aukera ematen duen baliabidea da; kontsumo-harreman horietan parte hartzen dute, batetik, enpresaburu eta profesionalak, eta, bestetik, kontsumitzaile eta erabiltzaileek. Euskadiko Kontsumoko Arbitraje Batzordeak administrazio-zerbitzu laguntzaile bat dauka, eta honako eginkizun hauek ditu:

- Kontsumitzaile eta erabiltzaileen, eta ondasunak eta zerbitzuak ekoizten, inportatzen edo hornitzen dituztenen artean arbitraje-hitzarmenak gauzatu eta sustatzea.
- Bitartekotza-jarduerak egitea, kontsumitzaile eta erabiltzaileen kexa edo erreklamazioek eragindako eztabaidei dagokienez.
- Eskaintzaren esparrua adieraziz beren lurralde-esparruan Kontsumoko Arbitraje Sistemari atxikitzeko eskaintza publikoak egin dituzten enpresen errolda publikoa egin eta eguneratzea.
- Arbitraje-hitzarmenaren ereduak egitea eta interesatuta dauden pertsonen eskura jartzea. Eredu horietan, Kontsumoko Arbitraje Sistemaren eraginpean jarri ezin daitezkeen auziak azalduko dira.




Kontsumoko Arbitraje Sistemak ezaugarri hauetan oinarritutako prozedura berezia du: borondatezotasuna, azkartasuna, eraginkortasuna, inpartzialtasuna, neutraltasuna eta doakotasuna.

### 2.3.1. Ezagutzera emateko kanpaina

Kontsumoko Arbitraje Sistemak sendotzen jarraitzen du; izan ere, urtetik urtera geroz eta enpresa, profesional eta saltoki gehiago atxikitzen dira, bide hori zerbitzuen kontsumitzaile eta erabiltzaileekiko gatazkak konpontzeko egokiena dela uste baitute. Oraingoan ere, balantzea positiboa da: 2012an, 1.031 enpresak egin zuten bat sistemarekin.


Atxikimendu berriak honako hauek izan dira lurralde historiko bakoitzean:



Arbitraje Sistemaren eraginpean jartzen den enpresak edo komertzioak bezeroen konfiantza eskuratzen du, kontsumo-arloko desadostasunak modu azkarrean konponduko direla bermatzen baitie. Publizitate positiboa da, eta horren bidez, establezimenduek kontsumo-arlorako aurreikusitako araudia beteko dutela bermatzen da, a priori.

Bestalde, atxikitako enpresen errolda eguneratzeko kanpaina bat egin zen 2012. urtean. Eguneratze horren bitartez batez ere egiaztatu zen atxikitako establezimenduek eta enpresek aktiboan jarraitzen zutela. Prozesu horretan, egiaztatu zen aurrez atxikitako 668 establezimenduk beren enpresa- edo merkataritza-jarduera bertan behera utzi zutela. Hori dela-eta, atxikitako enpresen erroldan baja eman zitzairen.

Horrela, aipatutako eguneratzearen ondoren, eta jarduera bertan behera utzi duten enpresak alde batera utzita, 15.048 dira Kontsumoko Arbitraje Sistemari atxikitako enpresak.



2012. urtean, zenbait bilera egin ziren enpresaburuen elkarte eta korporazioekin, baita kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarte eta erakundeekin ere, horiei Kontsumoko Arbitraje Sistemaren berri emateko, eta sistema hori hedatzeko, sustatzeko eta abian jartzeko zereginetan lagundu eta parte har dezaten sustatzeko.

Bilera horietan parte hartu zuten kolektiboek elkarteen atxikimendu-konpromisoari buruzko zenbait dokumentu jaso zituzten. Hain zuzen ere, konpromiso hori hartuz gero, elkarte horiek Euskadiko Kontsumoko Arbitraje Batzordearen funtzionamenduan parte hartuko dute, kontsumo-gaietan sortzen diren gatazkak konpontzeko.

Auzibidez bestelako sistema horrekiko atxikitze-ehunekoa aldatu egiten da jarduera-sektoreetan. Honako hauek dira atxikimendu-ehuneko handienak dituzten sektoreak: energia (% 87,50), telefonia (% 65,66), eta bitxi-denda eta erloju-dendak (% 60,41).

Beste muturrean, Kontsumoaren Arbitraje Sistemari atxikitzeko oztopo handienak jartzen dituzten sektoreak daude: garraioa (% 0,35), aseguruak (% 1,57) eta bankuak (sektore hau ez dute enpresek ordezkutzen).

Jarduera-sektoreak	Atxikitako enpresak	EUSKADIKO ENPRESAK ERREFERENTZIATZAT HARTUTA ATXIKIPEN % SEKTOREKA
Asialdiko jarduerak	51	%1,43
Bidaia-agentziak	44	%7,10
Elikadura	895	%9,88
Ibilgailuak	1.111	%29,94
Bazarrek	53	%6,89
Merkataritza elektronikoa	12	%21,43
Etxetresna elektrikoak, LTZ	485	%19,22
<b>Energia</b>	<b>14</b>	<b>%87,50</b>
Irakaskuntza	256	%5,99
Gune handiak	1.713	%5,53
Gremioak, etxebizitzak	465	%3,21
Ostalaritza	201	%36,44
Informatika	383	%60,41
Bitxigintza, erlojugintza	1.058	%35,20
Altzariak	2.153	%24,99
Bestel. txikikazko merkataritza	2.495	%4,20
Higiezinen sustapena	157	%3,56
Publizitatea	7	%0,60
Aseguruak	38	%1,57
Telefonia	107	%65,66
Ehunak, oinetakoak	3.184	%41,65
Tindategiak	117	%32,41
Garraioak	47	%0,35
Beste batzuk	2	%0,70
<b>Guztira</b>	<b>15.048</b>	<b>%8,95</b>

[Aurkibidera joan](#)

### 2.3.2. Arbitraje-eskaerak


2012an jasotako 1.019 arbitraje-eskaerak taula honetan islatzen den moduan banatu ziren sektoreka:

SEKTOREAK	ESKAERA KOPURUA
Asialdiko jarduerak	0
Bidaia-agentziak	6
Elikadura	5
Ibilgailuak	31
Bazarrak	3
Merkataritza elektronikoa	3
Etxetresna elektrikoak, LTZ	14
Energia	67
Irakaskuntza	25
Gune handiak	0
Gremioak, etxebizitzak	26
Ostalaritza	3
Informatika	6
Bitxigintza, erlojugintza	3
Altzariak	28
Bestelako txikikazko merkataritza	11
Beste batzuk	11
Higiezinaren sustapena	3
Aseguruak	2
Banku-zerbitzuak	3
Telefonia	716
Ehunak, oinetakoak	13
Tindategiak	34
Garraioak	6
Etxez-etxeko salmentak	0
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.019</b>


Honela izapidetu ziren jasotako eskaera guztiak:

- 990 eskaera (% 97,15) arbitraje-batzordearen bitartez bideratu ziren.
- 22 eskaera (% 2,16) ez ziren arbitraje-sistemaren bidez bideratu: 4 kontsumitzaileak berak atzera egin zuelako eta 18 onartuak izan ez zirelako.

- 7 eskaera (% 0,69) izapidetzen ari dira oraindik, 2012an ez baitzuten tratamendurik jaso.
- 303 eskaeren (% 29,74) kasuan, Kontsumobidek bitartekaritza-lana egin zuen enpresekin eta aurretiko hitzarmenak lortu ziren, arbitrajera jo beharrik izan gabe.
- 687 kasutan, erreklamatutako enpresei arbitraje-sistemara txertatzeko proposatu zitzairen. Horietatik 521 (% 71,51) onartu eta 175 (% 28,49) ukatu ziren.








2012. urtean, Arbitraje Batzordeak 498 laudo eman zituen (Arbitraje Batzordeak planteatutako arazoari buruz hartutako erabakia, kontsumitzaileak nahiz enpresak nahitaez bete behar dutena). Laudo gehien izan dituen sektorea telefonia izan da. Dena den, 2011. urtearekin alderatuta energia-sektoreak izan du laudo kopuruaren igoera handiena.

Emaitzei dagokienez, 196 kontsumitzailearen aldekoak izan ziren osorik eta 190 zati batean; 109 kasutan, diktamina kontsumitzailearen aurkakoa izan zen. 3 kasutan, Arbitraje Batzordeak laudoa emateko eskumena baliatzeari utzi zion.




[Aukibidera joan](#)

## 2.4. HITZEZKO EPAIKETAK

Bitartekotzak ez duenean emaitzarik ematen, kontsumitzaileek beren eskubideak defenditzeko duten beste bide bat auzitegietara jotzea da.

Kontsumobidek Euskadiko kontsumitzaileen 3 elkarteekin izenpetu dituen hitzarmenak direla-eta — Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa (EKA-OCUV), Euskal Herriko Kontsumitzaileen Batasuna (EHKB) eta Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargoa (EKE)—, elkarte horiek aholkularitza eskaintzen dute eta kasuak aztertzen dituzte, eskaerak aurrera egin dezakeen ikusteko. Bideragarritzat jotzen diren kasuetan, eta erreklamatutakoa 2.000 € baino gutxiago bada, ahozko epaiketako defentsa doakoa izan ohi da, kontsumitzailea elkarteko kide egiten bada.

Hitzarmen horri esker, elkarteek kontsumitzaileen defentsa doan gauzatu zuten 135 hitzezko epaiketatan. Zehazki, EKA-OCUV elkarteak defendatu zituen epaiketa gehien, 2012an: 89. Bestalde, EHKB eta EKE elkarteak 35 eta 11 epaiketatan aritu ziren defentsa gisa, hurrenez hurren.



[Aurkibidera joan](#)

### **3. MERKATUAREN KONTROLA**

Merkatuaren kontrola Kontsumobide – Kontsumoko Euskal Institutuaren lan-unitateetako bat da. Merkatuaren kontrola jarduera sorta bat da, hain zuzen ere kontsumitzaileen eskura dauden produktuek eta zerbitzuek indarreko legerian eskatutako baldintzak (etiketei, informazioari eta segurtasunari dagokienez) betetzen dituztela egiaztatzeko.

Honako jarduera hauek biltzen ditu:

- Ikuskatzeko eta kontrolatzeko kanpainak; jarduera programatuak dira, eta horien helburu nagusia da araudia bete dadin zaintzea. Arreta berezia jartzen da zorrotz araututa dauden sektoreen ikuskapen sistematikoan eta hainbat produkturen etiketatzean.
- Osasunerako edo segurtasunerako arriskutsuak izan daitezkeen produktuak identifikatzea, ibilgetzea eta, beharrezkoa den kasuetan, merkatutik kentzea.

#### **3.1. IKUSKATZE- ETA KONTROL-KANPAINAK**

Hainbat arrazoi direla-eta (arau-aldaketak, kontsumo handia, erreklamazio kopurua, arazoaren detekzioa, normalizazio-premiak eta abar) berariaz kontrolatzeko hautatzen diren produktuen, ondasunen eta zerbitzuen edota merkataritza-praktiken inguruan programatzen dira ikuskapen-kanpainak.

2012an honako ikuskapen-kanpaina hauek egin ziren:

- 1.- Etiketak kontrolatzea eta produktu bizigarrien laginak hartzea: kakaoa eta txokolatea.
- 2.- Jatorri-deiturako oliba-olio birjina estraren laginak hartzea.
- 3.- Irinen eta glutenik gabeko elikagaien laginak hartzea.
- 4.- 36 hilabetetik gorako haurrei zuzendutako jostailuen segurtasuna egiaztatzea.
- 5.- Besoetako flotagailutxoei (ur gainean egoten laguntzen duen produktua) aplikatu beharreko araudi zehatzak betetzen direla egiaztatzea.
- 6.- Publikoaren salmentarako prezioei dagozkien hainbat alderdi kontrolatzea, eta salmentarako guneek erreklamazio-orriak eta horiek iragartzen dituen kartelak dituztela egiaztatzea.
- 7.- Haragi-produktuen eta glutenik gabeko hestebeteen laginak hartzea.
- 8.- Aluminio-paperari aplikatu behar zaizkion arau-zehaztapenak betetzen direla egiaztatzea.
- 9.- Nutrizio-adierazpenak dituzten galleten eta opilen laginak hartzea: koiperik eta azukrerik gabeak.

10.- 36 hilabetetik gorako haurrei zuzendutako jostailuen etiketak kontrolatzea (1205/2011 Errege Dekretuaren arabera).

[Aurkibidera joan](#)

### 3.2. SOIVREekin KOORDINATUTAKO IKUSKAPEN KANPAINAK

2008ko otsailaren 28ko 330/2008 Errege Dekretuak, produktuen segurtasunaren arloan aplikatzekoak diren araei dagokienez produktu jakin batzuen inportazioa kontrolatzeko neurriak ezartzen dituenak, esaten du Lurralde eta Probintzietako Merkataritza Zuzendaritzetako SOIVRE ikuskaritza-zerbitzua dela inportatutako merkantzia saldu aurretik inportatutako produktuen segurtasun- eta etiketatze-gaietan aplikatu beharreko arauen arabera adostasunaren kontrol-ekintzak egiteko ardura duen erakundea.

Kontrolatzen diren salgaiak eskatzen diren segurtasun-betekizunak betetzen ez dituztenean, "Ados ez" gisa sailkatuko dira, eta irregulartasun horiek enpresa inportatzaileari edo haren ordezkariari eta INCari jakinaraziko zaizkie, eta azken horrek, bere aldetik, produktuaren enpresa erantzulearen kokalekua dagoen autonomia-erkidegoari jakinaraziko dio. "Ez-adostasunak" etiketatzean oharrak sartuta konpon daitezkeenean, enpresa inportatzaileari edo haren ordezkariari jakinaraziko zaio, eta hark, "Ados ez" salgaiak merkaturatu aurretik, kontsumo-agintariei jakinarazi beharko die aurkitutako irregulartasunak zuzendu dituela, eta kontsumo-agintariak, salgaiak etiketatzean exijitutako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu ondoren, salgaiak merkaturatzeko baimena emango dute.

Erantsitako taulan, Kontsumoko Institutu Nazionaletik produktuen "Ez-adostasunen" jakinarazpenak jasotakoan Kontsumo Ikuskapenerako Zerbitzuek egindako ekintzak agertzen dira.

<b>SOIVREekin KOORDINATUTAKO JARDUERAK</b>		
<b>Produktuak</b>	<b>Jarduerak</b>	<b>Kontrolatutako unitateak</b>
Ehunak, oinetakoak eta osagarriak	43	90.509
Jokoak eta jostailuak	4	53.964
Material elektrikoa	4	41.160
Altzariak	3	1.722
NBEak	9	83.254
Haurren arropak	10	35.565
<b>Guztira</b>	<b>73</b>	<b>306.174</b>

[Aurkibidera joan](#)

### 3.3. ELIKADURAKOEZ BESTEKOEN PRODUKTUEN KONTROLA

Europar Batasuna osatzen duten estatuen arteko mugak ezabatzearen ondorioz iritsi da zirkulazio librea, eta jatorria Erkidegoko herrialdeetan edo beste herrialde batzuetan duten produktu ugari biltzen dira gure merkatuan. Beraz, produktu seguruen merkaturatzea kontrolatzeko mekanismoak areagotu behar dira; helburu hori Informazioa Azkar Trukatzeako Sistemaren bidez lortu da, eta sistema hori Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2001eko abenduaren 3ko 2001/95/EE Zuzentarauan oinarritzen da, produktuen segurtasun orokorrari buruzkoa. Zuzentaru hori produktuen segurtasun orokorrari buruzko abenduaren 26ko 1801/2003 Errege Dekretuaren bidez aldatzen da gure antolamendu juridikora.

Gainera, AEBtik datozen oharrak kudeatzen dira, eta hango sarean (U.S. Consumer Product Safety Commission, CPSC) alerta jasotako produktuak gure herrialdean merkaturatzen diren egiaztatzen da.

Jarraian, jasotako alertei buruzko taula jaso da, eta alertak nondik datozen eta zer ikuskapen-jarduera egin diren zehazten da.

<b>ALERTATUTAKO PRODUKTUEN JATORRIZKO HERRIALDEA</b>					
<b>ALERTATUTAKO PRODUKTUAK</b>	<b>ASIAKO HERRIALDEAK</b>	<b>EB</b>	<b>BESTE BATZUK</b>	<b>IDENTIFIKATU GABE</b>	<b>GUZTIRA</b>
Ehunak-oinetakoak	392	132	89	163	776
Jokoak eta jostailuak	564	30	6	112	712
Material elektrikoa	456	38	6	69	569
Produktuak	92	41	79	37	249
Ibilgailuak	61	153	22	5	241
Etxetresna elektrikoak	64	2	2	21	89
Altzariak	14	7	0	1	22
Beste batzuk	224	67	17	64	372
<b>Guztira</b>	<b>1.867</b>	<b>470</b>	<b>221</b>	<b>472</b>	<b>3.030</b>

<b>AURKITUTAKO ETA ERRETIRATUTAKO ALERTATUTAKO PRODUKTUAK</b>		
<b>Produktu</b>	<b>Aurkitutako produktuak</b>	<b>Erretiratutako unitateak</b>
Jokoak eta jostailuak	32	13.816
Material elektrikoa	22	9.753
Produktu kimikoak	3	1.446
Kirol eta aisialdirako gaiak	5	274
Hautzaintza	9	232
Erremintak eta burdingintza gaiak oro har	3	147
Etxeko-tresna elektrikoak	5	130
Ehunak, oinetakoak eta osagarriak	12	117
Gai apaingarri batzuk	1	35
<b>GUZTIRA</b>	<b>92</b>	<b>25.950</b>

[Aurkibidera joan](#)

### 3.4. IKUSKATZE-LANAK

Guztira, Kontsumobidek 6.353 ikuskapen egin ditu, bai kanpainaren barrukoak, bai programatu gabeak; bigarren horien jatorriak hauek dira, nagusiki: salaketak, erreklamazioak, SOIVREekin elkarlanean egindako jarduerak, produktu irregularrak edo inhibizioak agertzea, eta autonomia-erkidegoen arteko komunikazioak.

Hurrengo tauletan, ikuskatze-jardunak —aktak nahiz txostenak— zehazten dira lurraldeka, eta arrazoia- eta produktu/zerbitzuaren arabera sailkatuta.

<b>IKUSKATZE-LANAK ARRAZOIKA ETA LURRALDE HISTORIKOKA</b>				
<b>Jarduera</b>	<b>Araba</b>	<b>Gipuzkoa</b>	<b>Bizkaia</b>	<b>Guztira</b>
Erreklamazioa/Salaketa	978	2.072	1.937	4.987
Alerta Sarea	234	555	256	1045
Kanpaina	203	297	311	811
Beste batzuk	37	100	73	210
<b>Guztira</b>	<b>1.452</b>	<b>3.024</b>	<b>2.577</b>	<b>7.053</b>

<b>IKUSKATZE-LANAK PRODUKTUKA ETA ZERBITZUKA</b>				
<b>Produktuak/Zerbitzuak</b>	<b>Áraba</b>	<b>Gipuzkoa</b>	<b>Bizkaia</b>	<b>Guztira</b>
Telefonia eta komunikazioa	459	1004	876	<b>2339</b>
Ehunak, oinetakoak eta osagarriak	91	185	237	<b>513</b>
Etxeko-tresna elektrikoak	114	236	129	<b>479</b>
Jostailuak	72	151	171	<b>394</b>
Ibilgailuak (salmenta eta konponketa)	105	133	84	<b>322</b>
Material elektrikoa	55	151	105	<b>311</b>
Altzariak	26	142	66	<b>234</b>
Etxebizitza (higiezinaren sustapena, gremioak-konponketak)	58	44	57	<b>159</b>
Elikadura	37	55	60	<b>152</b>
Prod. Kimik. (kosmetik., drog. eta lurringaiak)	22	45	48	<b>115</b>
Tindategiak, arropa-garbitegia	45	42	2	<b>89</b>
Energi-zerbitzuak (elektrizitatea, gasa, ura...)	8	25	19	<b>52</b>
Garraioak	8	16	12	<b>36</b>
Askotariko produktuak	191	378	419	<b>988</b>
Askotario zerbitzuak	91	240	171	<b>502</b>
Kodetu gabeak	70	177	121	<b>368</b>
<b>Guztira</b>	<b>1.452</b>	<b>3.024</b>	<b>2.577</b>	<b>7.053</b>

[Aurkibidera joan](#)



### 3.5. JAKINARAZPENAK

Salaketak, ikuskatze-jardunak edo arau-haustea izan daitezkeen gertakariak jakinarazteko izaten dira, betiere horien enpresa erantzulea beste autonomia-erkidego batekoa izanik. Hortaz, dagokion kontsumo-erakundera igortzen da espedientea.

2012an, beste autonomia-erkidego batzuetako 140 komunikazio jaso ziren, eta 138 komunikazio bidali ziren beste autonomia-erkidego batzuetara. Hurrengo taulan, komunikazioen jatorria eta helmuga jasotzen dira:

<b>JAKINARAZPENAK</b>		
<b>Autonomia Erkidegoa</b>	<b>BIDALITAKOAK</b>	<b>JASOTAKOAK</b>
ANDALUZIA	13	12
ARAGOI	2	5
ASTURIAS	6	1
BALEARRAK	0	14
KANARIAK	5	3
KANTABRIA	17	7
GAZTELA-MANTXA	1	4
<b>GAZTELA eta LEON</b>	<b>29</b>	<b>38</b>
KATALUNIA	13	11
CEUTA	0	0
MADRILGO ERKIDEGOA	13	9
VALENTZIAKO ERKIDEGOA	13	6
EXTREMADURA	1	0
GALIZIA	2	13
ERRIOXA	5	2
MELILLA	0	0
MURTZIA	5	4
NAFARROA	13	11
<b>GUZTIRA</b>	<b>138</b>	<b>140</b>

[Aurkibidera joan](#)

#### 4. PRESTAKUNTZA ETA HEZKUNTZA

Kontsumobide - Kontsumoko Euskal Institutuak herritarrei zein kontsumoaren arloan lan egiten duten profesionaleri zuzendutako prestakuntza- eta hezkuntza-programak antolatzen ditu.

Herritarrei zuzendutako prestakuntza-programen helburua da herritarrak kontsumitzaile gisa dituzten eskubide eta betebeharren alorrean kontzientziatu eta heztea, produktuak eta zerbitzuak modu kritiko, kontziente eta arduratsuan kontsumi ditzaten.

Herritarrak kontsumoaren alorrean prestatu eta hezteko, Kontsumobide - Kontsumoko Euskal Institutuak hiru programa ditu: **Kontsumobideren Prestakuntza Zentroak, Kontsumoko Prestakuntza Ikastetxeetan, eta Kontsumoa eta Adineko Pertsonak**. Aurten, guztira 57.075 pertsonak hartu dute parte hiru programa horietan (2011n baino 1.486 parte-hartzaile gehiago).

Bestalde, kontsumoaren alorrean lan egiten duten profesionaleri zuzendutako etengabeko prestakuntza-programak hainbat helburu ditu: etengabe aldatzen ari den mundu konplexu honetan ezaguerak eguneratzea eta gaitasun berriak eskuratzen laguntzea, horrela, kontsumoan eskumena duten administrazioko eta elkarteetako kontsumitzaileei arreta eskaintzeko zerbitzu eraginkorragoak eskaintzeko.

**Kontsumoaren alorreko profesionaleri zuzendutako prestakuntzari** dagokionez, urtean zehar prestakuntza-programa jarraitu bat egiten da. 2012an, 110 pertsonak hartu dute parte.

La **formación dirigida a profesionales del consumo**, se lleva a cabo mediante un programa de formación continua a lo largo del año. En 2012 han participado 110 personas.

[Aurkibidera joan](#)

##### 4.1. KONTSUMOBIDEKO PRESTAKUNTZA ZENTROAK

Kontsumobide - Kontsumoko Euskal Institutuak kontsumoari buruzko prestakuntza-zentro bat du Lurralde Historiko bakoitzean. Honako hauek dira zentro horien prestakuntza-helburuak:

- Ikastetxeetan kontsumitzaileen heziketa dinamizatzea.
- Zenbait kolektibo eta elkarteri kontsumoarekin zerikusia duten trebakuntza-jarduerak egiteko aukera ematea.
- Kontsumoarekin zerikusia duten zenbait gairen tratamenduan teknologia berrien erabilera bultzatzea.
- Kontsumoari buruzko argitalpenak kontsultatzeko aukera ematea.

2012. urtean, 28.423 pertsonak hartu dute parte prestakuntza-zentroen bidez eskainitako prestakuntza- eta informazio-jardueretan, hau da, **tailer, hitzaldi, ikastaro, erakusketa nahiz jardunaldietan.**

#### **4.1.1. Prestakuntza zentroetako eskaintza:**

##### **4.1.1.1 Lantegiak:**

- **Berariazko kontsumo-lantegiak**

Ordu eta erdiko iraupena duten jarduera praktikoak dira, kontsumoaren alorreko gai jakin bati buruzkoak. Gainera, xede den talde sozialari egokitutako edukiak eskaintzen dira.

Garatutako jardueretan parte-hartzaileek tailerretan parte hartzeko metodologia aktiboa erabiltzen da, eta gehienez ere 14 urtetik gorako 15 laguneko taldeei zuzenduta daude.

Eskainitako tailerrak jarraian agertzen diren arloen arabera sailkatzen dira:

1. Publizitatea
2. Etiketatzea
3. Erosketak eta zerbitzuak
4. Elikagaiak
5. Jasangarritasuna
6. Kontsumitzailearen eskubideak
7. Teknologia berriak
8. Finantza-zerbitzuak
9. Segurtasuna

2012. urtean 2.044 tailer eskaini dira: 809 Bilbon, 826 Gasteizen eta 409 Donostian. Horietan 161 ikastetxek hartu dute parte: 99 irakaskuntza arautukoak, eta 62 irakaskuntza ez-arautukoak.

Honako hauek izan dira tailerrak garatzeko eskaera gehien izan duten arloak: elikadura eta jasangarritasuna.

- **Prestakuntza-sortak**

Elkarrekin lotuta dauden tailerrez osatutako paketeak dira, eta oinarri komuna izanik, hainbat saiotan lantzen dira. Bigarren hezkuntzako 2. zikloko ikastetxeei, helduentzako ikastetxeei, eta helduen elkarte nahiz taldeei zuzenduta daude.

2012. urtean bi eskaini dira:

- "Ikas ezazu zeure burua babesten"
- "Bidaiatzea erraza da, nola egin jakinez gero"

- **Kontsumoko maratokiak**

Kontsumoari buruzko hainbat gai jorrazteko egiten diren prestakuntza-programak dira. Modu trinkoan egiten dira, goiz oso batean.

2012. urtean bi eskaini dira:

Kontsumoari buruzko minimaratoia: bigarren hezkuntzako ikastetxeei, helduentzako ikastetxeei, eta helduen elkarte nahiz taldeei zuzendua.

Udako maratokia: udalekuetan izena emanda dauden 6 eta 13 urte bitarteko neska-mutilei zuzendua.

#### **4.1.1.2 Hezitzaileei zuzenduriko jardunaldi teoriko-praktikoak:**

Hezitzaileei (gurasoak, irakasleak eta abar) zuzendutako 35 jardunaldi egin dira; 571 pertsonak hartu dute parte eta honako gai hauek landu dira:

- Irakasleentzako jardunaldiak:
  - Gazteak eta teknologia berriak
  - Zertan gastatzen dute belaunaldi berriek?
  - Publizitatea eta kontsumoa
  - Gizarte-sareak, telefonia eta komunikazioa
- Gurasoentzako jardunaldiak:
  - Nabigazio segurua eta sare sozialak
  - Familiaren aurrekontua
  - Janariak modu seguruan prestatzea

#### **4.1.1.3 Mailegu-zerbitzua:**

Kontsumobideren prestakuntza-zentroek mediatekak dituzte; horietan, liburu, CD-ROM, bideo, jolas eta multimedien maleta didaktikoen mailegu-zerbitzua eskaintzen da.

Eskaera gehien izan duen materiala elikadurari, jasangarritasunari, kontsumo-hezkuntzari eta teknologia berriei buruzkoa izan da.

[Aurkibidera joan](#)

## 4.2. KONTSUMOKO PRESTAKUNTZA IKASTETXEETAN PROGRAMA

Lehen Hezkuntzako ikastetxeei zuzenduta dago programa hau, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloari.

Ikastetxea osatzen duten hiru kolektiboek zuzendutako jarduerak dira: ikasleak, irakasleak eta gurasoak. Erabilitako metodologia aktiboa da, parte-hartzea bultzatzen duena, eta esperimentazioan, praktikan eta talde-lanean oinarritzen da.

Helburuak:

Batetik, ikasleen eskura zenbait tresna jartzea, kontsumo-gizarte honetan arduraz eta sen kritikoz jokatzeko moduan egon daitezen.

Erabakiak hartzeko erraztasunak ematea, kontsumoaren ondorio diren fenomeno jakin batzuen aurrean.



Ikastetxe desberdinetan eskaintzen den programa honen barnean kontsumoari buruzko 2.775 tailer egin dira (2.405 Lehen Hezkuntzan eta 370 Bigarren Hezkuntzan), Euskadiko 137 ikastetxetan; horietan 24.407 ikaslek hartu dute parte, baita dagozkien irakasleek eta 922 gurasok ere.

### 4.2.1. Eskaintza ikasleentzat

Ordu eta erdiko 35 tailer eskaini dira guztira.

